

## Euskal herrietan komentuz komentu

# Donostiako San Telmo

*Acaba de abrirse al público el Museo de San Telmo, en San Sebastián. No es nuevo, sino renovado, y tiene su historia: en su origen y durante tres siglos fue un Convento dominicano. Los acuerdos logrados entre la Corona, el Obispo de Pamplona y los propios dominicos, más el mecenazgo de Alonso Idiákez hicieron posible la fundación del mismo, a pesar de la oposición inicial de la ciudad y el clero local (1531, 1540).*

San Telmoko gaurko Museo donostiarra garai bateko Komentu domingotar baten eraikinetan bildu da. Gure hiriburuetako beste zenbait komenturen kasutan bezala (eta Donostian frantziskotarrekin XVI. mendean behin eta berriz gertatutakoaren antzera), domingotarren komentu hau ez zen sortu eztabaida, interes kontrajarri eta tarteko negoziaketarik gabe.

### Hasiera zailak (1512-1562)

Fernando Errege Katolikoaren politika barruan ulertu behar da Donostiako Kontzeju eta Elizari Koroak 1512aren inguruan Komentu domingotarra sortzeko egindako proposamena. Orduan eta gero Donostia mugaldeko hiri gotortua zen, atzerritarren arriskuetatik (erlijioso eta armatutetatik bereziki) lurraldea eta Erreinua zaindu behar zuena. Horra, San Telmoko Komentuaren betekizunetako bat.

Esku zuzena izan zuten beronen fundazioan Idiákeztarrek, eta gaur arte bertan egon dira fundatzaileen hilobiak, Alonso Idiákez (1497-1547) eta Grazia Olazabal haren emaztearenak. Familiarteko besteren artean, Alonso eta beronen Joan semea (1540-1614) hurrenez hurren Karlos V.aren eta Felipe II.aren erret idazkariak izan ziren. Zailtasun guztien aurka, hurbiltasun horretaz baliatu zen Alonso Idiákez Donostia-

ko komentu honen asmoa sustatu eta aurrera ateratzeko. Horretarako diru handiak jarri zituzten senar-emazteek beren ondare eta errentetatik (1540-1562).

San Telmoko Komentuaren sortzea ez zen samurra izan; 1512an saiatu zen Koroa horretarako gauzak bideratzen; geldialdi luze baten ondoren, 1531etik aurrera berbideratu nahi izan zuen egitasmoa, eta ahalegin horretan lehenengo Martin Sz. de Araiz-ek, Gorteko harremanek (1531-1540) eta, berehala, Alonso Idiákez-en gogoak eta diru-eskaintzek ahalbideratu zuten dena, 1540tik aurrera, hain zuzen Grazia emaztea, jada alargundua, guztiaren buru zela, 1547tik aitzina.

Komentuko arkitektura Martin de Santiago arkitekto domingotarrarena da eta, jaso ziren eraikin ezberdinetan, ez zen falta izan kontu-arduradun eta maisu hargin euskal herritarrik, harik eta eliza, klaustroa, komentua, etab. dena burutu zen arte (1562). Fundazioa segurtaturik, San Telmo Ordena domingotar erreformazalearen eskuetan geratu zen eta Trentoko berrikuntzen ildoan joan zen ondoko urteetan.

### Donostiako komentuan

San Telmo Euskal Herriko fraide domingotarren komentu-sarearen barruan begiratu behar da.



Donostiako hau ez zen, inondik ere lehendik aurrekinik ez zena; alderantziz, domingotarrak Euskal Herrian zeuden XIII. mendetik: Iruñea, Lizarra, Zangoza, Gasteiz, Tuter, Bilbo eta Azpeitia, Esklaustrazioaren aurretik, eta Bergara eta abar ondoren.

Donostian, esan bezala, alde interesatu ezberdinen batasuna lortu behar eta, domingotarren fraidearteari etorkizuna segurtatzeko behin eta berriz adostu behar izan ziren fundazioaren baldintzak. Udalak bere nahiak zituen, fraideek ere bai berenak.

Obratarako diruak, eraikuntzarako baimeak, eraikinen jabetasuna, fundatzaileen elizako eserlekuak eta hilobiak, hildakoen alde emateko mezak eta eliza-komentuen gobernu onerako baldintzak zehaztu ziren fundazio-hitzarmenean. Bestalde, Udalak hitzarmeneko baldintzak nola gordetzen ziren miatzeko esku-bidea izango zuen.

Hemen guretzat, interes gehiago du fraidearteari jarri zitzaizkion betebeharrak ezagutzeak, fundatzaileek eta Udal Kontzejuak ezarri eta zaindu nahi zituztenak, noski. Komentuan 30 gela prestatuko ziren (fraidegaientzakoak aparte), eta Kolegioak hamabi ikasle lagun izango zituen, giputzak, edo Erreinuko beste herrialdeetakoak eta bertan gehienez sei urte egin zitzaketanak. Gramatika ez ezik arteak eta teologia ere irakatsiko ziren bertan, eta ez elizgizonen bakarrik, baita herritarrei ere (*assi clericos como legos, libremente*).

Kolegioaren asmo hau indarrez azpimarratuta geratu zen hitzarmenean. Beste zenbait

komentutan bezala, garaiko irakaskuntza-sistema eskasari gaina hartu nahi zion San Telmo ere. Komentu-Kolegioen urtez urteko ibilera historikoaren gorabeherak ez ditugu soberra ezagutzen, baina badakigu, esateko, fraidez ongi hornitua zegoela 1615ean, bere 30 erlijiosorekin.

Irakasleen artean M. B. Etxeberria historialaria eta Martin Etxeberria teologo, legegizon eta idazle bezala aipatua gogoratu izan dira komentu honetako bizilagunetan. Guztien gaineratik, Aita Domingo Erkizia martiria (Errezil, 1589-Nagasaki, 1633) da Komentu honen historiako fraide leinargia eta berrikitan santutzat aitortua (1987). Bestalde, Euskal Herrian (baina ez komentu honetakoak) beste bi santu domingotar ere aipa daitezke, Migel Aozaraza oñatiarra (†1537) eta Balendin Berriotxo elorriarra (†1861).

Donostiako fraide domingotarren hau osatzeko, ekar dezagun hona moja domingotarren beste komentu donostiarra, lehenengo Donostiako Antiguano eraikia (1546), eta orain, Ategorrieta auzoan dagoena.

Fraideen San Telmoko komentua lehen gerra karlistako urteetan itxi arazi zuten, eta XIX. mendean artilleriako koartel bihurturik ikusten dugu. 1932tik hona Museo izan da San Telmo. Azken hilabete hauetan berrikuntzengatik itxita egon ondoren, patxadazko bisitaldi bat egitea merezi du orain Museo berriak.

**Joseba Intxausti**